

ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan
[7. zk.] 2024ko ekaina

HIZKUNTZA EZ-SEXISTA

Euskara, generorik gabeko hizkuntza?

LUNA MARTINICORENA

Nafarroako Gobernuko
LGTBI+ arloko
Berdintasunerako
zuzendariordeari
elkarrizketa

I+G+B TANTAK

NILSAk euskaraz
sortutako
podcastak

BERDINTASUNA NAFARROAN



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea



Ekainaren 28ko LGBT Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren manifestazioa Iruñeko Gazteluko Plazan (1991. urtea). Argazkilaria: Angel Leranoz.

Manifestación del Día Internacional del Orgullo LGBT del 28 de junio en la Plaza del Castillo de Pamplona (año 1991). Fotógrafo: Angel Leranoz.

ENAP

Euskara Nafarroako
Administrazio Publikoetan
[7. zk.] 2024ko ekaina

Koordinatzailea:

Euskara Administrazio
Publikoetan
Garatzeko Zerbitzua
(Euskarabidea)

Kolaboratzaileak:

Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua,
Nafarroako Berdintasunerako
Institutua,
Euskara Sustatzeko Atala,
Antsoingo Udala, NILSA,
Nafarroako Parlamentuko prentsa
zerbitzua

Diseinua: Ana Cobo

Azaleko argazkia: INAI-NABI

Irudiak: Freepik

Argazkiak: Euskarabidea eta
INAI-NABI

ENAP aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ENAP aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 2697-0988

Egilea: Euskarabidea-Euskararen
Nafar Institutua
Paulino Caballero 13
31002 Iruña
Tel. 848 42 60 54
www.euskarabidea.es

AURKIBIDEA

4 **Elkarrizketa:** Luna Martinicorena

7 **Gobernutik:** NILSaren podcastak

8-9 **Erreportajea:** LGTBI+ genealogia
Nafarroan

10 **Parlamentutik:** Emakume zientzialarien
erakusketa

11 **Udaletatik:** Euskararen udaberria

12 **Euskarabidetik:** Musikariak
ikastetxeetan

13 **Ohar historikoa:** Margarita, Nafarroako
erregina

14-15 **Hiztegi terminologikoa:** Hizkuntza
ez-sexista

* Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena euskarabidea@navarra.es helbidera.

Luna Martinicorena



LGTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordea: "Nafarroako LGTBI+ mugimendua indartsu dago"

unitatea izatera pasa zen. Azkenik, 2019ko urrian, gaur egun duen izen eta forma hartu zuen, hau da, LGTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordea.

Lan ildo asko eta anitzak lantzen dituzue Zuzendariordea honetan, zein dira zuen lehenetasun nagusiak?

Esan bezala, Zuzendaritzaordetzaren zeregina LGTBI+ arloko politika publikoak definitu eta koordinatzea da, besteak beste. Honek, lan ardatz ezberdinak sortu ditu.

Zuzendaritzaordetzak Nafarroako Gobernuko Departamentuetan martxan jarri behar diren neurriak definitzeko eta hauek koordinatzeko ardura du. Hau da, LGTBI+ alorreko berdintasun politikak zeharkako moduan ulertzea eta modu horretan administrazioaren barnean lantzen joatea. Bestetik, sentsibilizazio kanpainak egiten ditugu, hala nola, maiatzaren 17koa, LGTBI+ fobiaren Aurkako Nazioarteko Egunari buruzkoa eta ekainaren 28koa, LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna. LGTBI+ pertsonok pairatzen ditugun biolentziak ikusarazi eta salatzeke kanpainak egiten ditugu; LGTBI+ eskubideen, aniztasunaren eta berdintasunaren aldeko aldarriak dituztenak.

Zuzendaritzaordetzaren beste lan ildoetako bat da LGTBI+ eskubideen eta berdintasunaren alde lan egiten duten proiektu eta programak sustatzeko dirulaguntza lerro ezberdinak izatea. Alde batetik, LGTBI+ elkarteei zuzendu-

LGTBI+ arloko Berdintasunerako Zuzendariordea, Nafarroako Berdintasunaren Institutuari atxikirik dagoen unitatea da, noiz sortu zen?

Gaur egun Zuzendaritzaordetza denak izaera ezberdinak izan ditu denboran zehar. 2017ko legeak, LGTBI+ berdintasunerako politika publikoak aurrera eramane zituen organo espezifikoak sortzea aurreikusten zuen, nahiz eta izaera juridikoa ez zehaztu.

Hala, 2017 urtean LGTBI+ arloko Berdintasunerako Bulegoa sortu zen Informazio, Sentsibilizazio eta Gizarte Partaidetzarako Atalari atxikirik. Hau izan zen Nafarroako Gobernuak bere organigramaren barne sexu eta genero aniztasunaren inguruko arreta espezifikorako unitate administratibo bat sortu zuen lehen aldia. 2019ko otsailean, INAI/NABIren estatuak aldatu egin ziren eta ordura arte Bulegoa izandakoa Zuzendaritzari zuzenean atxikiriko

tako dirulaguntzak eta bestetik, toki entitateei zuzendutakoak. Honi lotuta, LGTBI+ fobiarik gabeko udalerrien sarea aktibatzeke proiektua ere badugu eta honen bidez, Nafarroako udalerrri ezberdinetan LGTBI+ politikak sustatzen dira, eragileen arteko koordinazioa indartu egiten da eta udalerrietan toki entitateek egiten duten lanari ere errekonozimendua ematen zaio.

Lehenetasuna, beraz, LGTBI+ alorreko berdintasunaren alde lan egitea da, zeharkakotasunez administrazioaren maila, espazio eta alor ezberdinetan.

Zer da Arreta Integralerako Zerbitzua?

LGTBI+ eskubideen promoziorako eta arreta integralerako zerbitzu publikoa eta doakoa da. Zerbitzuaren ardura Nafarroako Berdintasun Institutuak, zehazki LGTBI+ arloko Zuzendaritzaordetzak dauka, berdintasunaren aldeko politiken arduradun baikara.

Kattalingune Nafarroako Gobernuko LGTBI+ Arreta Integralerako Zerbitzua esparru ezberdinetako profesional espezializatuz dago osatua eta sexu nahiz genero aniztasunaren inguruko informazioa, arreta, aholkularitza psiko-sexologikoak eta juridikoak eta norbanako zein profesionalentzat laguntza integrala eskaintzen ditu.

Zerbitzua 2016. urtean jaio zen Nafarroa mailan LGTBI+ alorrean Lehen Arreta Zerbitzua gisa eta Iruñean ireki zen lehenengo bulegoa. Urtez urte baliabideak indartuz joan dira eta garapen horretan, Nafarroako puntu ezberdinetan bulegoak irekiz joan dira, zerbitzuaren deszentralizazioaren alde. Gaur egun, Iruñean, Tuteran, Irurtzunen, Tafallan eta Lizarran daude bulegoak.

Egun, birdefinizio fase batean gaude, eta hau da Zuzendaritzaordetzaren eta INAI/NABI-ren beste eginbeharrak garrantzitsuenetako bat: arreta integralerako zerbitzu publiko, duin eta kalitatezko bat bermatzea.

Dirulaguntzak ere badituzue, zeintzuk dira eta zertarako ematen dira?

Bi dirulaguntza lerro ezberdin ditugu: Alde batetik, elkarteei zuzendutakoak ditugu, LGTBI+ berdintasunaren aldeko proiektuak egiteko.

2024. urtekoa seigarren deialdia izanen da. Eta bestetik, toki entitateei zuzendutakoak banatzen ditugu. Deialdi hauek 4 modalitate aurreikusten dituzte: herri edo hiriko LGTBI+ diagnostikoa egitera bideratua dagoena; LGTBI+ ekintza plana garatzera bideratutakoa; ikerketa sektorialak garatzera bideratutakoa eta azkenik, LGTBI+ berdintasun alorreko sentsibilizazio eta eskubideen promoziorako programak garatzera bideratutakoa. Aurtengoa laugarren deialdia izanen da. Honen harira, esanen nuke, urtez urte geroz eta toki entitate gehiagok eskatzen dutela dirulaguntza eta hori, berri ona da, geroz eta udalerrri gehiagok gai honetan lan egiteko duten jarrera ikusarazten baitu.

8/2017 Foru Legea, ekainaren 18koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa, zer eman dio Nafarroako gizarteari?

Hasteko, eragile ezberdinen lanaren ondorio izan zen lege honek LGTBI+ pertsonen eskubideen defentsa eta hauen bermerako markoa ekarri duela esango nuke. Hortaz, berdintasunaren aldeko pausua eta diskriminazioa borrokatzeke tresna dela esango nuke, gizarte aldaketa eta aldaketa instituzionala bultzatzeko helburua zuena.

Legeak esparru oso anitzak lantzen ditu eta bizitzako alor guztietan eragina duten neurriak proposatzen ditu (alor soziala, hezkuntza, osasuna, familia, kultura, kirola, gazteria...). LGTBI+ berdintasunaren alorrean landu behar diren politikak eta horiek aurrera eramateko dugun betebeharrak definitzen ditu. Hala, legeak, LGTBI+ pertsonen eskubideen errekonozimendua eta hauek bermatzeko marko formal edo normatiboa ekarri du. Badakigu berdintasun formala eta erreala ez direla gauza bera eta lege bat edukitzeak ez duela berdintasun erreala bermatzen, baina aurrerapauso garrantzitsua da LGTBI+ pertsonen eskubideen errekonozimenduan.

8/2017 Foru Legearen garapenarekin Ekintza Plana gauzatu zen, zein dira ildo nagusiak?

8/2017 Legeak politika eta ildo ezberdinak jasotzen ditu, eta Ekintza Planak neurri konkretuak zehazten ditu. Beraz, Ekintza planaren helburua sexu eta genero aniztasunaren pers-

ELKARRIZKETA

pektiba arlo instituzionalean garatzea da eta, aldi berean, Nafarroako LGTBI+ pertsonen eskubideen defentsa eta esparru honetan dauden beharrei erantzuna ematen saiatzen da.

Hala, modu global batean sexu eta genero aniztasunaren ikuspuntua, jardun instituzionalean zeharkakoa izatean datza, Nafarroako Gobernuko Departamentu bakoitzaren ardura izanen diren neurriak definituz. Honi lotuta, baita LGTBI+ eskubideen errekonozimendua eta promozioa nahiz berdintasunean oinarritutako sentsibilizazio lanaren bidez, gizarte aldaketa baten alde lan egitea ere.

Bestetik, lehen komentatutako LGTBI+ arreta zerbitzua bermatzea, sexu eta genero aniztasunaren alorrean egon daitezkeen beharrei erantzuna ematen saiatzeko.

Orain, I. Planaren ebaluazioan eta II. Planaren garapenean gaude murgildurik.

LGTBI+ fobia, nola definitu daiteke eta nola egin diezaiokegu aurre?

Nahiz eta aurrerapauso handiak eman diren azken hamarkada eta urteotan, LGTBI+ fobia existitzen da, matxismoa eta beste desberdintasun eta biolentziak existitzen diren bezala. Gainera, modu oso aniztetan adierazten da. Esanen nuke momentu konplexua dela, alde batetik, LGTBI+ pertsonak ikusaraztean eta hauen eskubideen defentsan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, baina aldi berean, diskurtso LGTBI+fobikoak, antifeministak eta arrazistak instituzionalizatuz eta normalizatuz joan dira azken urteotan.

Datuei dagokienez, Nafarroa mailan ez dugu datu ofizialik. Baina esanguratsua izan daiteke komentatzea, adibidez, Barne Ministerioak Estatu espainiarrean gorroto delituen inguruko azkenengo txostenean dioena: genero identitate eta orientazioari lotutako gorroto delituak bigarren postuan daude, arrazismo eta xenofobia delituen atzetik. Iruña mailan, LGTBI+ fobiaren Behatokiak, urtero publikatzen duen txostenean, 35 eraso erreportatzen ditu. Jakinik, hauek, adierazpen esplizitu eta bortitzenak direla soilik eta LGTBI+ fobiak, matxismoak eta arrazismoak bezala hamaika aurpegi dituela.

Hau horrela da genero identitateaz eta orientazioaz ari garenean, zeharkako ardatz batez ari garelako eta bizitzako esparru guztiak gurtzatzen dituen errealitate bat badelako. LGTBI+ fobiaz ari garenean, zisheteronormaz kanpo egoteagatik pairatzen diren diskriminazio eta biolentziak ari gara eta honek, esan bezala, forma eta intentsitate ezberdinak izan ditzake. Dena den, estrukturalki ematen den desberdintasun hau borrokatzeko prest dagoen jendea ere badago eta alor ezberdinetatik lan egiten ari dela uste dut. Kolektiboetatik lanean ari dira eta instituzioetatik ere lanean ari gara LGTBI+ pertsonen eskubideen defentsan.

LGTBI+ komunitatea Nafarroan, zer berezitasun ditu? Zein da Nafarroako egoera?

Hasteko, esanen nuke, Nafarroako LGTBI+ mugimenduak historia luze, bizi eta interesgarri bat duela eta horrek ere bere eragina duela egungo herri mugimendu edo kolektibo eta elkarten egoeran. Egia da, beste mugimendu sozial eta politikoetan gertatzen den bezala, boladak ere egon daitezkeela. Nire sentsazioa da, azken urte hauek ez direla oso errazak izan mugimendu eta kolektiboentzat, hainbat faktoregatik. Dena den, esanen nuke, Nafarroako LGTBI+ mugimendua indartsu dagoela, nik behintzat, bizia ikusten dut, elkarte berriak sortzen ari dira Nafarroako herri eta eremu ezberdinetan, Iruñerria mailan lan egiten duten elkarte dezente dago... Beste zonalde batzuekin alderatuta, esanen nuke, Nafarroa mobilizazio handiko lurraldea dela eta hori, dudarik gabe, pozteko modukoa da. ■

Entrevista a Luna Martinicorena, Subdirectora de Igualdad LGTBI+ en el Instituto Navarro para la Igualdad/ Nafarroako Berdintasunerako Institutua, sobre los retos, avances y líneas de trabajo que se están llevando a cabo en la Subdirección.



GOBERNUTIK

I+G+B TANTAK

NILSA sozietate publikoko I+G+B (Ikerkuntza+Garapena+Berrikuntza) taldeak podcast moduko pilulak sortu ditu euskaraz, uraren kudeaketari buruzkoak.

NILSA 1989an Nafarroan sortu zen sozietate publiko bat da, eta bere egitekoa da hondakin-urak araztea, erakunde eskudun guztiak hornitzen laguntzea eta hiri-hondakinak kudeatzea da. Nafarroako uraren kudeaketarako estrategia bateratua bultzatzen du, ura biltzen denetik araztu ondoren ibaira itzultzen den arte.

2007tik, NILSA Nafarroako Hondakinen Partzuergoko kide da kudeatzaile gisa. Helburua da Foru Komunitateko hondakinak modurik onenean eta araudi guztien arabera kudeatu eta tratatzea, Europar Batasunetik sortzen diren jarraibideei arreta berezia eskainiz.



I+G+B taldeak, NILSAn egiten diren lanen berri emateko, euskaraz sortutako podcast pilulak egin ditu, Tantak izenekoak, eta araztegiei, drainatze sistemiei edo hondakinei buruzko gaiak jorratzen dituzte, uraren kudeaketari buruzko informazio interesgarria zabalduz.

Podcastak entzungai daude NILSaren webgunean, Zer egiten dugu > Saneamendua eta arazketa > I+G+B > I+G+B Tantak 2023-2024 atalean, edo esteka honetan:

<https://www.nilsa.com/eu/zer-egiten-dugu/saneamendua-eta-arazketa/igb/>



El equipo de I+D+I de la sociedad pública NILSA ha creado unos podcast divulgativos en euskera sobre la gestión integral del agua.

ERREPORTAJEA

LGTBI+ MUGIMENDUEN GENEALOGIA NAFARROAN

Nafarroan frankismoaren errepresioaren ondoren hasi ziren LGTBI+ kolektiboaren aldeko gizarte mugimenduak. Genealogia honetan, 1978az geroztik LGTBI+ kolektiboarentzako eskubideen aitortzean Nafarroan gertatu diren eta gaur egunera arte iritsi diren mugarririk historiko aipagarrienak jaso dira.

AURREKARIAK:

Ideologia nazionalista-katolikoa aldarrikatzen zuen diktadura indarrean zegoen bitartean, LGTBI+ kolektiboa legez zigortua zegoen Zigor Kodean (baita Zigor Kode Militarrean ere): 1933ko Alfer eta Gaizkileen Legea 1954an aldatu zen, pertsona homosexualak barne hartzeko, eta hainbat neurri biltzen zituen; besteak beste, lan establezimenduetan edo nekazaritza kolonietan barneratzea, bizileku jakin batzuetan bizitzea debekatzea eta non bizi ziren adieraztera derrigortzea. 1970ean, kolektibo horren aurkako errepresioa gogortu egin zen Arriskugarritasunari eta Gizarteratzeari buruzko Legearen ondorioz; izan ere, 1978ra arte, pertsona homosexualak atxilotu eta "berreziketa" zentroetan giltzapetu zitezkeen (terapia agresiboak baliatzen zituzten). Hala ere, askotan, kartzela konbentzionaletan betetzen zituzten kondenak.

Frankismoaren amaierak asoziazionismoaren gorakada ekarri zuen maila guztietan, eta kolektibo politikoak pixkanaka legezatu ziren. Horrela, gay eta lesbianen erakundeen sare bat sortu zen Espainiako estatu osoan: **Unión Democrática Homosexual de Málaga**,



Movimiento Sexual Aragonés (Zaragoza), **Frente de Liberación Homosexual Gallego** (Santiago de Compostela), **Frente de Liberación Homosexual de Castilla**, **EHGAM** (Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua, Bilbo), eta abar. Talde horiek Espainiako Estatuko Askapen Homosexualerako Fronteen Koordinakunde (COFHLEE) elkartu ziren 1977an, indarrak batzeko asmoz. Aldi berean, lehen jardunaldi feministak antolatu ziren Madrilan (1975), Bartzelonan (1976) eta Leioan (1977). ■

Tras la represión franquista comenzaron en Navarra los movimientos sociales a favor del colectivo LGTBI+. En esta genealogía se recogen los hitos históricos más relevantes que se han producido en Navarra en el reconocimiento de los derechos para el colectivo LGTBI+ y que llegan hasta el día de hoy.



ERREPORTAJEA

LGTBI+ GENEALOGIA:

- 1978** Espainian homosexualitatea despenalizatu zen eta Txantrean Andraize sexu eta ugalketa arretarako zentroa sortu zen.
- 1979** ESAM, Emakumearen Sexual Askatasunerako Mugimendua, eta Tuterako Emakumeen Asanblada sortu ziren.
- 1980** Nafarroako Koordinakunde Feministaren barruan, Lesbiana Feministen Kolektiboa sortu zen.
- 1981** EHGAM-Nafarroa sortu zen.
- 1982** Gay Harrotasunaren Nazioarteko Egunean lehen manifestazioa izan zen iruñan.
- 1983** Kirurgia transexuala Zigor Kodean despenalizatu zen.
- 1985** Emakumeen Asanbladak Tuterako sindikatu bertikalaren eraikina okupatu zuen.
- 1986** Autodefentsa feministako lehen tailerra Iruñean.
- 1988** HIEsaren Aurkako Borrokaren Nazioarteko Egunaren lehen ospakizuna egin zen Iruñan, eta Zigor Kodean "eskandalu publikoa"-ri buruz zegoen artikulua indargabetu zen.
- 1990** Osasunaren Mundu Erakundeak ez du gehiago nahasmendu mentaltzat hartuko homosexualitatea, eta Lumatza Iruñeko erakunde lesbiana sortu zen.
- 1992** Lehen salaketa publikoa Takonera parkean eraso homofobo batengatik eta lehenengo adierazpen instituzionala Nafarroako Parlamentuan.
- 2000** Kattalingorri, Nafarroako gay, lesbiana, trans eta bisexualen elkarte, ireki zen Iruñeko Aldapa kalean, eta Landa ingurunekeo Lesbianen 1. Landa Topaketa izan zen Olozin.
- 2002** Ilota Ledo, Nafarroako transexualen, lagunen eta senideen elkartua sortu zen.
- 2003** E28J plataforma sortu zen.
- 2005** Sexu bereko bikoteei ezkontzeko debekua amaitu zen.
- 2007** Pertsonen sexuari buruzko aipamenaren erregistro zuzenketa arautu zen.
- 2011** Lugatibe, LGTB fobia desagerrarazteko elkarte, sortu zen.
- 2015** Chrysallis EH, adingabe transexualen familien elkarte sortu zen, eta Basati Queer Fest-en lehen edizioa ospatu zen.
- 2016** Kattalingune sortu zen, Nafarroako Gobernuaren LGTBI+ arreta zerbitzua.
- 2017** Harrotu sortu zen, Iruñeko Udalaren zerbitzu publikoa sexu eta genero-dibertsitateari buruzko informazio eta arretarako.
- 2019** Naizen, adingabe transexualen familien elkarte, sortu zen.
- 2021** Nafarroako Erdialdea LGTBifobiarik gabeko espazio deklaratu zen, eta Landa Manifestua sinatu zen.

Nafarroako Parlamentuak “Emakume zientzialari ilustratuak” erakusketa hartu du



ADItch-ek antolatutako bildumak Nafarroako emakume ikertzaile eta zientzialariak omentzea izan du helburu

Erakusketa honekin Nafarroako Parlamentuak esparru guztietan berdintasuna lortzeko urratsak ematen jarraitzea garrantzitsua dela adierazi nahi izan du. Izan ere, UNESCOren datuen arabera, mundu osoko ikertzaileen % 28 baino ez dira emakumeak, eta, Europar Batasuneko herrialdeetan, STEM karreretan graduatutako emakumeen ehunekoa % 20 eta % 30 artekoa da.

Testuinguru horretan, eta oraindik berdintasuna lortzeko bide luzea duen gizarte batean bizi garela baieztatu ondoren, erakusketaren balioa azpimarratzekoa da, "Nafarroan ditugun emakume zientzialariei

aurpegia jarriz, astero Parlamentua bisitatzen duten ikasleentzat erreferente izan daitezkeelako". Horrela azpimarratu zuen Nafarroako Parlamentuko lehendakari Unai Hualdek.

Emakume zientzialari ilustratuak erakusketa Leire Urbeltz artista nafarrak sortutako eskultura-lan batek eta Miren Asiain, Lidia Cao, María Picasso i Piquer, Maite Mutuberria, Alba Casanova, Ana Galvañ, Rebeca Losada, Nuria Riaza, Flavita Banana, Coco Dávez eta Sonia Pulido artista grafikoek sortutako 11 ilustraziok osatzen dute. ■

Según datos de la UNESCO solo un 28% de las personas investigadoras de todo el mundo son mujeres y, para visibilizar su importancia, el Parlamento de Navarra ha acogido la **exposición "Mujeres ilustradas"**. El objetivo, homenajear a las mujeres investigadoras y científicas de Navarra.



Antsoainek **Euskararen Udaberria zikloa** lehen aldiz ospatu du euskararen erabilera sustatzeko

Plan hau 1994an jarri zen martxan. 2024ko udaberrian, Antsoaingo Udaleko Euskara zerbitzuak euskarazko jardueren ziklo bat antolatu du, Euskararen Udaberria izenekoa. Euskara protagonista izango den espazio bat eskaini eta hizkuntzaren erabilera testuinguru ezberdinetara zabaltzeko helburuarekin, programak herritar guztien parte-hartzea bilatzen du, hiztun euskaldunak zein euskara eta bere errealitateari buruz gehiago jakin nahi duten pertsonak inplikatzuz.

Zikloak apirilaren 29tik maiatzaren 11ra arte iraun du eta publiko guztiei zuzendutako jarduera ugari eskaini ditu: hitzaldiak, liburu aurkezpenak, euskarazko film laburren emanaldiak, bertso-afariak eta azken ospakizun handi bat. Maiatzaren 10eko afarian Amets Arzallus, Saioa Alkaiza eta Sustrai Colina bezalako bertsolari ezagunek parte hartu dute.

Zikloaren egun nagusian, maiatzaren 11n, adin eta gustu guztietarako jarduerak eskaini dira, hala nola kalejira bat erraldoi eta buruhandien konpartsarekin, karrika-dantza Lapurbide plazan, kaldereteak eta bazkari autogestionatua Harrobi Gazte Zentroan. Egunari amaiera emateko, "Beietz" taldeak folk kontzertu bat eman du. ■



El Ayuntamiento de Ansoáin ha organizado por primera vez el ciclo **Euskararen Udaberria**, con el objetivo de fomentar el uso del euskera entre la población de manera participativa.

EUSKARABIDETIK

MUSIKARIAK IKASTETXEETAN

Euskal kulturaren transmisioa gazteen artean zabaltzearen, musikariak ikasgeletara hurbiltzen dituen programa sustatzen du Euskarabideak

2023-2024 ikasturtetik aurrera Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak Musikariak Ikastetxeetan programa kudeatzen ari da, Hezkuntza Departamentuarekin hitzarmen bat sinatu ondoren.

Programa A eta D ereduak DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta dago, hau da, 15 eta 18 bitarteko gazteei zuzendutako programa da. Gazteen eta musikarien arteko kontaktu zuzena egitea du helburu eta euskal kulturaren hedapena lortzea egungo gazteriaren artean, euskararen erabilera sustatuz.

Ikasgelan musikariekin topaketak egiten dira, musikari bakoitzak azal dezan bere sortze prozesua, bere lanak euskal tradizio musikarekin duen lotura eta idazle edo poetekin izandako lankidetzak. Autoreak, halaber, zuzenean zenbait kanta jotzen ditu, aipaturiko sortze prozesua azaltzen laguntzeko. Saioak antolatzeko, ikastalde egonkorak hartzen dira aintzat eta saioak 90 minutuko iraupena du, oro har. Topaketak eskola ordutegian egiten dira.



Aurtengoa programaren 6. urtea da eta, Musikariak Ikastetxeetan programari esker, 700 saio baino gehiago egingo dira Nafarroa osoan. Geletatik artista ezagunak pasa dira, hala nola: Ines Osinaga, Txapelpunk, Lide Hernando, Olaia Inziarte, Thierry Buscari, Tristtan Mourgouy, Esti Markez edo Zuriñe Hidalgo. ■

Desde el curso 2023-2024 Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera gestiona el programa **Musikariak Ikastetxeetan** con el objetivo de divulgar el conocimiento y la transmisión de la música en euskera entre el alumnado, a través de visitas de las y los artistas a las aulas.

OHAR HISTORIKOA

Margarita, Nafarroako Erregina (1492-1546)

Ixabel Etxeberriak **Margarita, Nafarroako erregina (1492-1546)** izeneko liburua idatzi du eta Euskaltzaindiak argitaratu du. Bertan, Etxeberriak, Margarita Angulemakoak idatzitako hiru antzerki euskaratu ditu eta bere alabarekin, Joana Albretekoarekin, trukaturako gutunak ere jaso ditu. Antzerkiak olerki formatuan idatzi zituen eta horrek euskaratzea zaildu diola nabarmendu du idazleak.

Nafarroako erreginak idatzitako antzezlanak euskaratzeaz gain, bakoitzari azalpenak ere gehitu dizkio; antzerki bakoitza eta hauek idatzi ziren garaia hobeto ulertzeko. Antzezlan profanoak dira Margaritak idatzitakoak eta guztietan ezagunena *Heptamerona* da. 1558. urtean argitaratu zuen eta 72 eleberririk osatua dago. Lan honetan jendea animatu zuen gogoeta egin eta Elizaren ustelkeria salatzen. Une honetan Booktegi eta Nafarroako Ateneoa lan hau itzultzen ari dira.

Antzezlanetan jorratzen diren gaiak interesgarriak eta garaikideak direla dio Etxeberriak. Osasuna eta maitasuna lantzen ditu, besteak beste. Idazlearen hitzetan,



askotan, bigarren irakurketa bat merezi dute testuek, bere erlijioaren edo sinesmenen mezuak pasatzeko ere badira. Mezu garaikideak. Bere antzezlanetan aipatzen dituen eritasunen inguruko hainbat jokaera, gaur egun ere ikusten dira. Badira medikua ordezkatzeko duten pertsonaiak, beste batzuk belarrekin zaintzen dutenak, sendatzeko ordaindu egiten dutenak edota sendatzeko Jainkoaren indarrean sinestu behar dela esaten dutenak.

Margaritak alabarekin, Joana Albretekoarekin, urte luzez trukaturako gutunetan, oster, ama-alaben arteko harremana zein estua zen ikus daiteke. Nahiz eta, Joana txikia zenetik bere ardura Frantzisko I.ak, Margaritaren anaiak, hartu eta gurasoek bere bizitzari buruz erabakitzeak aukera gutxi izan. ■



En esta publicación de Euskaltzaindia, Ixabel Etxeberria ha recopilado diferentes textos de Margarita de Angulema, Reina de Navarra entre 1527 y 1549, y los ha traducido al euskera, añadiendo observaciones que facilitan la lectura de esos textos antiguos.

Hizkuntza ez-sexista

Euskara, generorik gabeko hizkuntza?

Euskara generorik gabeko hizkuntza dela esaten da. Gaztelaniaren kontrara, euskarak ez duelako genero-markarik adjektibo, izenorde eta izenlagunetan.

Horrek ez du esan nahi, ordea, generorik ez duen hizkuntza denik, izan ere, badira hainbat kasu generoa zehazteko erabiltzen direnak. Ez hori bakarrik, euskara ere modu sexista batean erabil daiteke, eta jarraian hainbat aholku jaso dira hori saihesteko.

Non ageri da generoa?

Hitanoa

Hitanoa erabiltzeak (hika) eskatzen du hitunak solaskidearen generoa kontuan izatea; aditzean marka desberdina erabiltzen da generoaren arabera:

- Ekar ezak proposamena / ekar ezan proposamena

Erabilpenean arazoak sortzen dira solaskidea ez denean pertsona bakarra, edo taldea genero bakar batek osatzen ez duenean.

“Gizona” erabilera

Tradizioan “gizona” hitza erabili da bai gizonak bai gizon eta emakumeak izendatzeko:

- Auzo horretan bost mila gizon bizi dira (gizakia esateko)
- Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia (“Izarren hautsa” abestian)
- Hitz-elkartuetan: lege-gizona, enpresa-gizona, plazagizona...

Generoa daukaten izenak

Hainbat izenek generoa daukate, bai animaliak izendatzeko bai pertsonen erreferentzia egiteko:

- Ama, amona, emakume, izeba, lehengusin, andregai, emazte, gizon, senar, osaba, lehengusu...
- Errege, erregin, neskame, morroi, moja...

Euskararen erabilera ez-sexistarako aholkuak

- I. Hitanoaren erabilera desegokia saihesteko, alternatiba gisa “zu” tratamendua dago, baita aditz languntzailea ez erabiltzea ere: ekar ezak hire proposamena -> ekarri hire proposamena
- II. “Gizon” hitza multzo handiak izendatzeko erabili beharrean, erabili generikoak: pertsonak, gizakia...
- III. Hitz elkartuetan: lege-gizona, enpresa-gizona, plaza-gizona... --> legetaria, enpresaria, plaza-pertsona...
- IV. Tradiziozkoak ez diren hitzetan, ez erabili -sa atzikia generoa txertatzeko: alkatesa, jainkosa, aktorea -> alkatea, jainkoa, aktorea...
- V. Generoaren aipamen alferrikakoak saihestu: “Ondo dagoela esan du Mendiburu andreak” -> “Ondo dagoela esan du Mendiburuk”.

Simetriaren araua

Mezuen bidez transmititzen den sexismoari erreparatzeko, estrategia erraz bat dago kasu askotan ondo funtzionatzen duena: simetriaren araua. Susmagarria den hitza edo esaldia beste generoari aplika diezaiozun ea egokia iruditzen zaigun.

Informazio gehiago: Emakunderen eskuliburua.

El euskera, pese a no tener marca de género como el castellano, también puede ser utilizado de manera sexista, por lo que se exponen recomendaciones para su uso no-sexista.

www.euskarabidea.es

